

AZPEITIA / Liburu egunaren inguruko ekitaldiak astean zehar

Apirilaren 23an Liburu Eguna zela-eta Azpeitiko Udal Liburutegiak zenbait ekintza antolatu ditu horren inguruan. Astelehenean, maiatzak 2, Haur Hezkuntzako 4. mailakoei zuzenduta, Rosa M^a Martinez ipuin kontalaria izango da liburutegian, ' Hala bazan ' izenburua duen saioarekin. Iaz, Udalak Liburu egunean berak argitaratutako liburuak salmentan jarri zituen prezio berezi batean eta aurten ere ekintza berbera burutuko du maiatzaren 6an (23a Aste Santua baitzen) eta egun hori aprobetxatuz Liburutegia ere kaleratuko da bere zerbitzuak herritarrei eskaintzeko. Bestalde, aste guztian zehar, liburutegian fitxa bat betetzen duenak 40 irakurketa agenden zozketan parte hartuko du. Zozketa maiatzak 6an, arratsaldeko 19:00etan egingo da. Iturri Txiki Ludotekan ere umeekin zenbait ekintza egingo dira liburutegiarekin lotuta.